



BARREN

TOKIKOM


# Baleazaleen arrastoa

Angel Ugarteburu





# INPLANTE PROMOZIO BERRIA!



**Ekainaren 15-etik  
Irailak 15-era arte!**

**943 36 63 77**  
**[www.dentalaldaz.com](http://www.dentalaldaz.com)**



Lasarte - Oria  
Ola kalea, 10

Elgoibar  
San Bartolomé, 22

Tolosa  
San Frantzisko, 39



NORA HADI



*“Ez dakit noiz, baina urruneko kontrol autoa eta baloia atzean utzi eta nire ohe gaina panpinaz betetzen hasi nintzen”*

**A**kordatzen al zara Garazi, Gabonetan eskatu zenuen lehen opariaz? Eta azkenaz? Ene, nola pasatu den denbora eta nola aldatu garen... Ni ederki asko oroitzen naiz amaren laguntzaz idatzi nuen lehen gutun hartan eskatu nituen jostailuez: urruneko kontrol autoa, errealeko ekipazioa eta jokalariek sinatutako futbol baloia. 3 urte eskas izango nituen, baina nire altxorrik preziatuenak baliran zaintzen nituen guztiak. Akordatzen naiz, sinadura horiek ezabatzeko beldur, ez nuela baloiari ostikorik ematerik nahi izaten, eta amak baietz; emateko lasai, errepasatuko genituela errotulagailuz etxean (amak aitortu zidan gerora, sinadura horiek denak berak eginak zirela).

Kalean, harro erakusten nituen opariok eta lagunartean ere han ibiltzen nintzen inbidia eman nahian, eta baita lortu ere! Dena den, sarritan entzun behar izaten nuen horiek “mutilen” gauzak zirela eta ni mari-mutil bat nintzela.

Ez dakit noiz, baina urruneko kontrol autoa eta baloia atzean utzi eta nire ohe gaina panpinaz betetzen hasi nintzen. Baita nire ahizparen laborategiko arratoi izaten ere: ilean trenza ezberdinak probatzeko, azkazkalak margotzeko... eta konturatu orduko nire kasa makilatzen kalera irteko, depilatzen piszinara joateko, armairu barrua aldzkarietako mutil guapoz betetzen... “nesken” gauzak egiten, alegia.

Beti uste izan dut aldaketa hori modu naturalean eman zela nigan, ume izatetik emakume izatera pasatzearen konsekuentzia huts bat baino ez zela izan.

Eta gaur arte, Garazi. Miren Amurizak idatzitako *Galleta lesbianak* testuak pentsakor laga ninduen aurrekoan. Eta hona galdera, Garazi: Jakina neska izanda panpinak gustoko izan ditzakegula, baina... inoiz galdetu ahal diogu gure buruari zergatik?



GARAZI AYESTA



*“Azken finean inguruak egiten gaitu beste ezerk baino gehiago, ez duzu uste?”*

**G**ure etxean mundu bi sortu ziren, lau pareren artean. Ondo gertutik ezagutzen dut nik, eta baita zuk ere, umetan pilotari-kirolari-futbolista-atleta izan zen neskatila bat. Ni, aldiz, printzesa samarra izan naiz beti. Eta, jo, zelako amorrua ematen didan orain. Beti takoiak eta purpurina aidean, beti dotore, beti soinekorik disdiratsuenak begiz jota. Nik, egia esan, maiz galdetu diot nire buruari, nire printzesismoaren zenbat izan den barrutik datorkidana, eta zenbat inguruak sortutakoa. Etxe berean, guraso berdinekin, futbolaria eta *cheerleaderra* izan baikara gu.

Imajinatzen dut norberak baduela izateko eran joera bat edo beste; baina, ukazina da, ni, neska, emakumezkoa, emea naizelako izan naizela, hein handi batean, printzesa txikia. Zuk Amuriza aipatu duzu, eta kulturako emakume indartsu eta erreferenteak aipatzen hasita, Uxue Alberdiren esaldi bat bo-

tako dizut nik: “...nola ezpatarik inork ez zidan eskaini ume garaian ia 20 urte daramat printzesa hori hil nahian...”. Azken finean, inguruak egiten gaitu beste ezerk baino gehiago, ez duzu uste? Eta hortxe, zure galderari erantzuna.

Unibertsitatean deontologiako ikasketak egin nituenean, sexuaren eta generoaren gaia sakon jorratu genuen. Hango irakasleak (gizonezkoa zen bera) berehala esan zigun guk sekula ez dugula ezer aukeratzeko betarik izan; ezta gure bikotekidea ere. Gizarteak erakutsi digu, hein handi batean, “nor” gustatu behar zaigun. Emakumeon kasuan, behar duela izan gizonezkoa, zuria eta segurtasuna emango diguna. Hori da hegemonia, hori legea. Eta Alberdik esan zuen bezala, norbere umetako printzesak deseraiki edo hil ezean, nekez aterako gara gizonezko-zuri-boteretsuen bukletik.

## ANE ASTIAZARAN

Itzultzailea



## Festarik festa d(g)abiltzanoi

dea. Ederra da urteko burukomin guztiak txosnagune, taberna, dantza eta irri artean desagertzen ikustea. Baina are ederragoa da (kuadrillaren atzean ezkatzen den) indibidualismo hori alde batera utzi eta auzolanean eraikitzen den jai-eredu parekide, inklusibo eta plural batzuez gozatzea.

Ez da nire helburua (oraingoz) jaiak aldarrikapen-gune ere badirela gogoraraztea, ezta jendea lanean jarraraztea ere; gune horiek duten garrantziaren inguruan hausnartzea

(edo ulertzen saiatzea) baizik. Norbanakoaren zorientasunarekin itsuturik, maiz ahazten baitugu festak zorientasun kolektibo baten plaza direla.

(Betiko salbuespenak salbuespen) askatasun utopiko eta atipiko batez bizi ohi ditugu festak. Hain zuzen, izaera kolektibotik sortzen direlako bihurtzen dira jende askoren babesgune, eta hamaika borrokaren arnagune (uste dut ez dagoela horiek zerrendatu beharrik). Hori dela eta, inguruko (eta ez horren inguruko) jai herrikoietan (eta jai herrikoiei esker) ikus daiteke herria bizien (edo hala behar luke behintzat).

ritsi da uda, eta udarekin batera hasten dute (dugu) gazte askok inguruko (eta ez horren inguruko) festa guztiak lotzen dituen sarea, Eibarren udako solstizioa ospatzen hasi eta (gutxienez) gure herriko jaiak arte luzatzen den ibilbi-

*“Norbanakoaren zorientasunarekin itsuturik, maiz ahazten dugu festak zorientasun kolektibo baten plaza direla”*



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA  
Euzkoalduko Lehenengo Argitaletxea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR  
943 744 112  
Publizitatea: 943 743 704  
[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)  
[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)  
[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENeK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriki lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENeK ez du bere gain hartzen Iritzia, Zofoak Beleari eta eskuittzak ataletan adierazitakoan erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalaa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabala, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansoa, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Sorraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegui, Maddi Mendibil, Haizea Beristain **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ► ZUBIETAKO ERRAUSTEGIA BEHIN BETIKO GELDITU!

Ekainaren 14tik 21era Zubietako erraustegiaren kontra astebetean Donostiako Easo plazan gose greba burutu zuten sei lagunek (Irantzu Jauregi, Iñaki Armendariz, Teresa Lopez de Munain, Kepa Olaiz, Aran Garmendia eta Mila Zabalo) beren ekintzaren azalpenak zabaldu dituzte iritzi artikuluan batean. Euren hitz batzuk hartu dituzte guztiok (elgoibartarrek eta mendarotarrek ere) kontuan hartzeko:

“Gure lanak, familiak eta etxeak utzi eta astebetean egon gara kalean elikagairik hartu gabe, gure gorputzak borrokarako tresnatzat hartuz, aire garbiaren eta osasunaren eskubideak aldarrikatuz. Nazioarteko ikerketa zientifikoek diotenez, hainbat osasun arazo eta minbizi motek nabarmen egiten dute gora bereziki erraustegitik 10 kilometroren bueltan (Donostia, Astigarraga, Urnieta, Lasarte-Oria, Usurbil, Billabona, Andoain, Hernani, Orio...), eta eragin hori bereziki da kaltegarria haurrentzat. Zein politikari klasek agintzen du Foru Aldundian? Datu hauek guztiak eta gehiago esku artean izanda, nola liteke erraustegiaren egitasmoarekin jarraitzea? Erraustegia eginez gero, sekulako dirutza (diru publikoa) jasoko duten gutxi horientzat gobernatzen duten politikariak ote ditugu Foru Aldundian? Ez al lukete guztion onurarako aritu behar? Zertarako behar ditugu bestela?”

Garbi ikusi dugu informatua dagoen herritarrek ez duela erraustegirik nahi, gutxiago etxe ondoan. Baina hau Foru Aldundiko agintariek ere badakite, horregatik ari dira etenik gabe, informazio ezkatzen eta aurkako protestak isiltzen. Horretarako, egun hauetan salatu dugun bezala, hainbat komunikabide erabiltzen dituzte, besteak beste guztion diruarekin ordaindutako EITB.

Gutako bakoitzak txikitik eraginda, helburu handiak lor ditzakegu. Lurra eta herria bizirik. Zubietako erraustegia behin betiko gelditu!”

A.I.Z.

### ► OHARRA

Opor aurreko azken alea uztailaren 14an argitaratuko dugu. Ale horretan zerbait argitaratu nahi izanez gero, asteazken eguerdirako ekarri edo bidali behar duzue BARREnera.

BARREN

### ABEL ARRIAGA

*Elgoibarren euskarak gu denon bultzada behar duelako.*

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar dituzte:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia deriragorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: “Ikastolako irakasleak”, esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraok, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeetako zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztekeraz datorren eskutitzik argitaratuko.



**Zergatik merezi du Elgoibarko Izarrako bazkide izatea?**

## Agintaldiaren erdira iritsita, Legealdi Planean jasotako eginkizunen betetze-maila “oso altua” dela nabarmendu du Elgoibarko Udalak

Legegintzaldiaren erdia bete da, eta orain artekoaz balorazio positiboa egin du Elgoibarko Udalak. Joan zen ostiralean egin zuten Ane Beitia alkateak eta Josu Arraiz Hirigintza zinegotziak 2016-2019 Legealdi Planaren errepa-soa, eta han jasotako eginkizun gehienak beteta edo gutxie-nez abiarazita daudela nabarmendu zuten. Planaren betetze maila “oso altua” dela esan zuen Beitiak, %96,3koa, hain zuzen ere. Herriaren etorkizuneko erronka nagusiak biltzen dituzte Legealdi Planean eta behar horiei erantzuteko ekintzak eta proiektuak zehaztu.

2016-2019rako Legealdi Planean hiru arlotan bilduta dituzte eginkizunak: Herritartasuna, Antolakuntza eta Lurraldea. Guztira, 66 ekintza planifikatu zituzten, eta horien artean lehentasuneko 19 eginkizun zehaztu zituzten: zortzi Herritartasun arloan, lau Antolakuntza arloan eta zazpi Lurralde arloan, eta lehentasuneko ekintza horiek gauzatzeko, 4.635.500 euro jartzea aurreikusi zuten. Herritartasun alorrerako, 2.734.500 euro; Antolakuntza alorrerako, 695.000 euro, eta Lurraldea alorrerako, 1.206.000 euro. Antolakuntza alorreko eginkizun guztiak bete dituela zehaztu du Beitiak: herritarren arreta zerbitzua indartu, parte-hartze plana diseinatu eta ezarri, herritarrek informatzeko teknologia berriak martxan jarri eta udal kudeaketarako prozesuak berrikusteko eta errazteko prozesuak bultzatu. Gainerako bi alorretan, egin beharrekoen %95 exekutatu dituzte edo exekutatzen ari dira.

Puntuz puntu honako ekintzak dira Herritartasun arloan eta Lurralde arloan jaso zituztenak. Herritartasun arloan:



Etkez etxeko laguntza Zerbitzua behar berriei egokitzea, haurrentzako eskaintza bateratua egitea eta lanerako zailtasunak dituzten emakumeekin lan egitea, etxegabeteen aurkako protokoloa onartzea, arrisku egoeran dauden haurren arretarako protokoloa eta zerbitzuak hobetzea, Aisialdiko udal zerbitzuak eta eskaintza herriko haur, nerabe eta gazte guztientzat bermatzea, Herriko Antzokiaren kudeaketa eta diagnosia egitea eta Udaleko Erabilera Plana ebaluatu eta berria ezartzea. Lurralde arloan: Aita Agirre kulturegune izateko eraberritzea, Industrialdeak konpontzea eta haietako urbanizazioa hobetzea, Urazandiko haur-parkea berritzea, Olasogain berriz urbanizatzeko eta irisgarritasuna hobetzeko proiektua idaztea, mugikortasun plana eguneratzea, eta kaleko argiteria berritu eta argiteriaren eragikortasun energetiko hobetzeko programa gauzatzeko

### Erabakiak “inorekin kontatu gabe” hartzea egotzi dio EHBilduk

Legealdiaren erdia beteta, orain artekoaren balorazioa egin du EHBilduk, eta prentsa ohar bidez zabaldu. Oharrean, erabakiak “inorekin kontatu gabe” hartzea leporatu dio Udal Gobernuari. EHBilduk dio igarri zela alkate aldeketa hasieran. Alfredo Etxeberriaren aldean, Ane Beitia lan-estiloa “irekiagoa” zela jaso dute, eta horren ondorioz, harremanak “errazagoak eta zuzenagoak” izan zirela legegintzaldi hasieran. Bilduren zenbait eskaera ere aintzat hartu zirela gogorarazi dute, tartean bizikidetzaren mahai politikoaren garapena, hondakinen gairako mahaiaren eraketa, eta etxebizitzaren aloraikura sustatzeko konpromisoa hartzea. Baina kritika egin diote Udal Gobernuari esanez “jarrera ireki” haren atzean ez dutela “konpromisoak bete-

tzeko borondate handirik” sumatu. “Gu alboratuta, gure ekarpenak kontuan hartu gabe, inorekin kontatu gabe, hartzen dituzue erabakiak, hartzen dituzuenen”, diote oharrean. Horren harira baloratu dute legealdiko jardura-maila “oso baxua” izan dela, aurreko legealdiko emaitzekin alderatuz gero: “Hartutako erabakiak heren batean murriztu dira, eta jaitziera hori handiagoa izan da herritarrekin zerikusi zuzena duten erabakietan”.

Era berean, Legealdi Planean jasotako hainbat lan ildoren inguruan “ezer gutxi” egin izana leporatu dio, besteak beste honakoetan: parte-hartze planaren diseinuan, etxebizitza hutsak kudeatzeko planean, mugikortasun eta irisgarritasun planetan, eta Udalaren energia planean.

## Malapek irabazi du aurtengo Pintxo Lehiaketa, eta herritarren pintxo gustukoena San Roke tabernakoa izan da



Herritarren saria, bestalde, San Roke tabernako *Txibi beteak* pintxoak eskuratu du. Txapela eta diploma jaso ditu irabazleak. Herritarren parte-hartzea "nabarrena" izan dela adierazi dute antolatzaileek, eta guztira, 6.189 boto-txartel zenbatu dituztela.

Aurten 26 tabernak hartu dute parte lehiaketan, eta Ane Beitia alkateak eskerrak eman dizkie guztiei. Era berean, aurten maila handiko pintxoak aurkeztu dituztela gaineratu du, eta esan du epaimahaiak lan zaila izan duela irabazlea aukeratzeko.

Eguaztenean jakinarazi zituen Elgoibarko Udalak aurtengo Pintxo Lehiaketako irabazleak: Epaimahaiaren saria Malape tabernako *Darkoren pintxo* izenekoak irabazi du. Epaimahaia osatu duten lagunek pintxoaren itxura, aurkezpena, zaporea, testura eta originaltasuna hartu dituzte kontuan. Irabazleak txapela, diploma eta Txankakua merkatarik elkarteko kide diren saltokietan trukatzeko 300 euroko erosketa-txartela jaso du saritzat. Bigarren saria Txarriduna Hoteleko *Barrun gorri odolostea porru kremarekin* izeneko pintxoari eman diote, eta saritzat, txapela, diploma eta 100 euroko erosketa-txartela jaso ditu.

Egin zaitez bazkide!

Elgoibarko Izarra

943 741 626

[elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus)

[www.elgoibarkoizarra.eus](http://www.elgoibarkoizarra.eus)



## Klapetak jarriko ditu Mendaroko Udalak

### Garagartzan, auzoa berriz urak hartu ez dezan

Uholdeak saihesteko hainbat ekintza burutuko ditu Mendaroko Udalak, Garagartza auzoko bizilagunen eskaerari erantzunez. Eusko Jaurlaritzako Ura agentziako eta Gipuzkoako Ur Kontsorzio teknikoekin egon ondoren hartu dute erabakia. Bi puntu beltz identifikatu zituzten teknikoek: Errekabarrenen bat, eta bestea, Garagartza eta Trinitate kaleak bat egiten duten lekuan. Hala puntu horiek berriz urak har ez ditzan, klapetak ipiniko dituzte, errekarra doazen hobietatik ura irtetea eragozteko. Izan ere, azkeneko uholdeetan estoldetatik gora etorritako ura pilatu da inguru horretan, kalteak eraginez. Teknikoek ohartarazi dute beharbada ez dela behin-betiko irtenbidea izango, baina sinistuta daude gutxienez arazoa txikitzeko balioko dutela. Hori bai, ur emariak errekararen babes paretaren kota gainduko balu, ezingo litzateke ezer babestu.

Era berean, APP bat ere sortuko dute, herritarrek sakelako telefonoetan jaso ditzaten uholde arriskuen ohartarazpenak eta halakotarako gomendioak. Bestalde, enpresa espezialdu batek Tokiko Plan bat idatziko du herrirako, uholdeetan nola jokatu zehazteko.



**Angel Ugarteburu (eskuinean)** Manu Izagirrerekin, Ocean Endeavour ontzian. Robert Grenier arkeologoarekin batera, San Joan ontzia hondoratu zen lekuan bertan egin dituzten urpeko arkeologia lanetan jardun den donostiarra da Izagirre.

# “Euskal baleazaleak gaurko Kanadan zeuden Colon Ertamerikara iritsi aurretik”

## ► ANGEL UGARTEBURU

Ternuan eta Labradorren, duela bost mende euskal baleazaleak arrantzan ibili ohi ziren inguruan, ibili da Angel Ugarteburu, ‘Baleazaleen errutan’ espedizioarekin. Anai zaharrena bakailaotan ibilitakoa zuen Ugarteburuk han, eta hari entzundakoak eta liburuetan irakurritakoak bizitzeko aukera izan du, oso bestelako baldintzetan. Bidaiaren berri [www.barren.eus](http://www.barren.eus) webguneko komunitatea atalean ari da ematen Angel bera, atalez atal.

- AINARA ARGOITIA -

### ◆ Zerk jarri zaitu hain urrutiko parajeei begira?

Anai nagusia Ternuan bakailao-arrantzan ibili izanak eragin zuen nik entzuna izatea hango parajeetako berri. 2008ko udan, baina, erretiroa hartu berri nintzela eta, Kanadako beste puntan, British Columbiako Vancouverren, ezkondua bizi den anai batek, Tomasek, hara joateko

gonbidatu gintuen. Eta egin genuen hila-bete eta erdi bat han emazteak eta biok. Egonaldi hartan, Kanadako basoaldea ezagutzeko aukera izan genuen. Gero, bueltan, Rail Canada tren turistikoan etorri ginen Torontoraino, eta Niagara, Montreal eta Quebec city ezagutzeko aukera izan genuen. Ekialdeko kosta ezagutu barik itzuli ginen, baina, eta banuen ho-

rrin inbidia, interesgarria iruditzen zitzaidalako baleazaleak lehenengo eta bakailaotara joandakoak gero non zehar ibili ziren ikustea.

### ◆ Arrantzale haien ibilera haiek ere ez dira zuenean erabat arrotz, baina.

Ez. Gure anaietako beste bat, Matias, soldadutzatik etorri eta gero joan zen Ternua bakailao-kanpainan parte hartzera,



1950. urte aldera. 1926an sortutako Pasaia Pysbe enpresarentzat aritu zen lanean aldi batez, eta gogoratzen dut nola itzuli zen Ternuatik, berriro hara itzultzeko gogo handi barik. Kontatzen zigun laino itxia izaten zutela sarri eta sudurra odolotan izaten zutela, hotzaren hotzez. Esaten zigun itsasontziak sirena joka ibiltzen zirela etengabe, eta arrantzaleak kezka, noiz beste itsasontzi bat edo izozmendi bat joko. Arraste-ontziak ziren haiek, eta herrestariak ere bai, atzeko burdinazko ate handitik sarea bota eta han jausten zen guztia batzen zutelako. Portugalداررrek, adibidez, oso bestelako metodoa zuten arrantzarako. Taldetxotan bidaltzen omen zituzten txalupetan, eta kanaberarekin ibiltzen ei ziren arrantzan, hantxe, laino artean, sirena hotsez deitzen zituzten arte. Geu ere ibili gara eguraldi makurrarekin, ehun metrora ere ikusten ez zela, eta gaur, radarrak eta baditugu, baina orduan zer ote zen hura! Han uretara jausiz gero, momentuan zaude izotz blokea baino tenteago eginda!

#### ◆ Noiz eta nola izan zenuen Ternua 2017, Euskal Baleazaleen Espedizioaren berri?

Gabonak baino lehentxeago *Berria* egunkariak sagardotegiez atera zuen gehigarri batean irakurri zuen emazteak Astarbe sagardotegiak *Baleazaleen errutan* parte hartzeko asmoa zuela. Gutxi gorabehera, egin asmo zuten zortzi eguneko nabigaldiaren berri ere eman zuten argitalpen hartan. New Yorkeko enpresa batek antolatutako bidaiari zen, Arizmendi aita-semeek antolatutakoa, eta emazteak animatu ninduen izena ematera. Bidaiarako prestaketa lanen barruan, irakurri nituen hiruzpalau liburu, tartean Jon Maia zumaiarraren *Apaizak Obeto*. Ezagutzen nuen, era berean, San Joan itsasontziaren Albaola proiektua, eta euskal baleazale eta arrantzaleek zabaldutako bideei jarraika, Jon Maia berak eta haren lagunek Beothuk batelean San Lorenzo ibaian zehar egin zuten ibilaldia, eta, halaxe, proiektuaren ildo nagusiak irakurri ostean, eman nuen izena.

#### ◆ Bitxia egiten da sagardotegi bat tartean egotea. Nolatan?

Ziurrenik antolatzaileek eurek eskatuko zioten joateko, gure baleazaleen ontzietan sagardo asko eramaten zutelako. Marinel bakoitzak egunean lau bat litro sagardo edaten ei zituen. Izan ere, ura useldu egiten da, baina sagardoa ez, eta gainera, edari berdea denez, bitaminak ere hor ditu, eta horregatik, euskaldunek ez zituzten eskorbutoa eta halako gaitzak hartzen. Era berean, edari merkea ere bazen, eta graduazio txikikoa. Eta hori komeni zen, erne egon beharra zegoelako eta ez zelako komeni mozkortzerik. Garai hartan, sagardo asko saltzen zen itsasorako. Barnealdeko herrietan upelak egiten zituzten, itsasora sagardoa eramateko eta bueltan balearen koipea ekartzeko. Balearen koipeak gaur egungo petrolioaren emendioa egiten zuen. Interes komertziala ere izan du bidaiak, jakina. Astarbekoek barrika bat laga dute han, St John's-eko taberna batean.

## “Ternuako hiriburua euskaldunek sortu zuten, nahiz historia idatzi zutenek Saint Jean izena jarri gero”

#### ◆ Espedizio honetan euskal baleazaleek duela bost mende Ternuan eta Labradorren egindako ibilerak ezagutzeko aukera izan duzue. Zer azpimarratuko zenuke?

Interes historiko jakin baten inguruko hainbat jakingarri batu (euskal baleazaleen historia, San Joan galeoiaren hondoratzea, Albaolaren proiektua, Red Bayko naugrafioak..) eta osatu zuten plana, euskal arrantzaleak ibilitako lurretan zehar: St John's, Fogo uhartea, Chateau Bay, Red Bay, Placentia, 1987an Unescok gizeariaren ondare izendatutako Gros Morne natur parkea eta Ternua azpian dauden St. Pierre eta Miquelon uhartxeak, Fran-

tziazen koloniak. Euskal arrantzaleek jarritako izendun herrietan ibili gara. Ternuako hiriburua bera, St John's harbour, San Joan ei zen hasieran. Itxuraz Pasai Donibaneko arrantzaleek sortu zuten, baina frantziarrek, historia idatzi dutenek, Saint Jean jarri zioten gero, eta ingelesek, St John's harbour [Europatik gertuen dagoen Amerika iparraldeko hiria da. Guillermo Marconik Europatik bidalitako irratihina ere hantxe hartu zuen, 1901. urtean]

Placentia izenez ezagutzen den herria, berriz, Plentziakoek sortua da, eta Plentziako badiaren itxura zuelako eman zioten izen hori. Port au choix, berriz, Portutxo izenetik dator. Menperatzaileek euren hizkuntzetan eman dituzte jatorrizko euskal izen guzti horiek. Hemengo toponimoen adibideak asko dira. [Pierre Dexteberrik itzultitako *Nabigazioneko liburuan* irakur daitezke]

#### ◆ Zein perfiletako jendea izan duzu bidaietan?

Denetarik izan dugu, baina tartean izan dira bidaiari bereziak ere. Gurekin batera ibili dira, esaterako, 1.565ean, ekaitz batek hondoratu zuen San Joan itsasontzia topatu zuen Robert Grenier arkeologoa eta harekin batera ontzi hura hondoratu zen lekuan bertan egin dituzten urpeko arkeologia lanetan jardun den Manu Izagirre donostiarra eta Latonia Hartery Ternuako unibertsitateko arkeologia irakasla ere. Alde zientifikoa eraman dute horiek. Iraitz Agirre antropologo arrasatearra ere etorri da, eta baleazaleen emazteen egitekoaz, haiek hartzen zituzten ardurez eta Lancre inkisidore katolikoak emakume haien kontra esan zituen astakeriez aritu zaigu. Eta horiez gain, geologoak ere izan ditugu, azalpenak emateko.

#### ◆ Nola antolatzen zenuten eguna?

Polonian egindako Ocean Endeavour ontzian egin dugu bidaiari osoa, baina kostaldera zodiac edo ontzi pneumatikotan eraman gaituzte, Kanadako itsasertza ez delako sakonera handikoa. Baina, bai, guk egin dugun bidaiari ondo baino hobeto datorkio *Apaizak baino hobeto* esakera [hala erantzuten dute hangoek

## “Petroliorik eta argindarrrik gabeko garai haietan bizimodua errazago egiteko balio zuen baleak”

gaizki bizi ziren baleazale eta arrantzaleei entzunda]. Goizez egiten genituen irteerak lehorrera, eta gero bazkaldu ostean, hitzaldiren bat izaten genuen egunero. Iluntzean, 19:30ean, txotx! egiten genuen eta kantuan eta dantzan ibili ostean, afaltzera joaten ginen, kalejiran. Basque Culinary Centerreko irakasle bat eta ikasle bat etorri dira gurekin, eta gauero, haiek prestatutakoa afaltzen genuen. Zientziaz gain, osagai folklorikoa, kulturala eta gastronomikoa ere izan ditu bidaiak, eta baita instituzionala ere. Izan ere, harrerak ere egin dizkigute. Red Bay-n, alkateak, alkateordeak eta Labradorreko gobernadoreak egin ziguten harrera, eta St. Pierre eta Miquelonen ere egin ziguten harrera, euskal etxean. Bakailaotan jende asko ibili zen paraje horretan. Nicomedes Loiola Arteatik Elgoibarrera etorritako gizona ere gatzemaile moduan ibili zen bizi osoan paraje horietan, bakailao-kanpainetan. Bi-hiru hilabetetatik behin etortzen zen etxera, hamabost egunerako, eta bizarra kentzen ere balantzaka ibiltzen ei zen, itsasoan kulunkan dabilen ontziaren antzera. Hala diote haren seme-alabek, Karmelok eta Emiliak.

### ◆ Nola iritsi ziren gure arrantzaleak hain urrutira, eta noiz?.

Balearen atzetik. Lehenengo, ziurraski, ikusiko zituzten Kantauri itsasoan, eta ikusirik piztia erraldoi haiek zuten koipe guztia, jabetuko ziren bazela merkatua, petroliorik eta argindarrrik gabeko garai haietan bizimodua errazagoa egiteko aukera ematen zuelako. Galeoi batean 200 bat litroko 800 barrika inguru ekartzen zituzten balearen koipez beteta, eta barrika haietako bakoitzaren balioa gaur egungo milioia baino gehiagokoa zen. 200 litroko upel batek 6.000-7.000 dolar balio zituen. Balea-bizarrak ere oso preziatuak izan ziren, batez ere Frantzian. Balea-bizarrak kartilagoak dira, eta gaur egun plastikoz egiten diren gauza asko egiteko balio izan zuten: aiztoen eta ispi-luen heldulekuak... egiteko. Era berean, bitxigintzarako ere asko erabili zituzten. Aterkien “balenak” ere horrekin egiten

ziren eta hortik dator izena. Kargamendu batek 28.000 euroko balioa bazekarren, erdia baino gehiago, balearen lamek egiten zuten.

### ◆ Mitifikatzerainoko miresmena izan zaie balea ehizan jardun zuten itsasgizonari. Teknika izugarria ei zuten eta irakasle lanetan ere aritu zirela kanpoan.

Kantauri itsasoan egindako saioetan ikasi zuten balea dominatzen, lehenengo arpoiz zaurituz eta gero lantzetekin odolustuz, bazekitelako lehenabizi ahuldu egin beharra zutela derrigor, haren buztankada batek airean bota zitzakeelako denak. Kantauri aldeko baleen kopurua murriztu ahala, iritsi ziren euskal itsasgizonak Atlantiar Ozenoaren beste ertzeraino, balearen atzetik. Baina gure arrantzaleek ez zuten interes geostrategikorik, ez zuten kartografo baten interesik, eta ezta konkista gosez dabilenaren interesik ere, ez zuten euren ibilien berri jaso. Lur haien aurkikuntza konkistarekin lotu izan da beti, eta hala, Europako estatuek, bereziki Frantziak eta Ingalaterrak, eta haien zerbitzura lan egin zuten esploratzaileak izan dira hango berri eman dutenak: J. Cartier, Samuel Champlain, Giovanni Caboto... Kontinente amerikarra aurkitu zuten lehenak Kristobal Colon eta haren lagunak izan zirela esaten da, baina Colon iristarako topatuak zituzten lur haiek beste batzuk, bizibeharrak eraginda.

Eta bai, balea ehizatze teknika izugarri ondo dominatzen zuten. Horren adibide da Ipar Atlantikoan agintzen zuten estatuen itsasontzietan jardun zirela izan zirela esaten da, baina Colon iristarako topatuak zituzten lur haiek beste batzuk, bizibeharrak eraginda.

### ◆ Euskal industriaren aitzindari izan ziren baleazaleak?

Bai. Baleak arrantatzeko, beste alor batzuk ere jarri behar izan zituzten mar txan, ehizarako tresneria eta abarrak egiteko. Ipar Amerikako herri indigenen ikerketa batean, esaterako, XV. mendean Aian egindako aizkora bat aurkitu zuten Torontotik gertu, Whitchurchen, huroitarrek bizi izandako bizigune bateko indusketan. Horrek ere frogatzen du euskal baleazaleak Ipar-Atlantikoaren mendebaldean-gaurko Kanadan- zeudela Colon Ertamerikara iritsi aurretik.

### ◆ Aipatu duzu osagai ezberdinak izan dituela bidaiak. Besteak beste, San Joan ontzia hondoratu zen lekuan izan zarete, Albaola proiektuaren abiapuntuan.

Bai. San Joan ontzia 1.565ean hondoratu zen Red Bay-n, baina guk ez dugu euskaldunen bidez jakin haren berri, euskara hizkuntza agrafoa izan zelako XVI. mendera arte, eta euskaldunak, analfabetoak. Shelma Huxley ikerlariak atera zuen argitara Oñatiko artxiboetan. Itxuraz hondamendi hartan barrika batzuk salbatu ziren, baina kapitalismo merkantilaren hasiera zen, eta jabeek euren zatia kobratu arren, marinelei ez zieten eman zor zieten eta haiek auzitegira jo zuten. Salaketa hori da Huxleyk Oñatin topatu duena, eta hor esaten da ekaitz bortitza batek astindu zuela San Joan ontzia, kargatuta etxera etortzekoa zela. Ipurdiz gora gelditu ei zen. Lokalizazioa zehatza zen, eta horri esker, Robert Grenier arkeologo quebecarrak 1978an aurkitu zituen San Joan ontzia bera eta bi batel, eta haren irudira ari dira orain erreplika osatzen, mimo handiz eta orduko materialak erabilita. Hor hasten da Albaola proiektua. Erreplika hori 2020rako eginda egongo da. Hain justu ere, batel horietako baten erreplika da Jon Maiak eta Quebecera eramane zutena, *Beothuk*, eta handik Red Bay-ra. 40 egunean, 2.000 kilometro egin zituzten, orduko arrantzaleek moduan jantzita: ahuntz larruzko botak eta artilezko arropak jantzita.

## DANOBATGROUPen espezialdutako ikasleen lehen promozioak jaso du titulazioa

Muntatzaileen Tailer Eskola sortu zuen DANOBATGROUPek orain dela bost urte, benetako ekoizpen inguruntara egokitutako prestakuntza profesionala emateko. 2012az geroztik industri taldeak Lanbide Heziketa duala (LH) ematen du bere eskolan, prestakuntza eta lana txandakatuz, Elgoibarko Makina Erremintaren Institutuarekin (IMH) elkarlanean. Sistemak, funtsean, oinarri teoriko sendoak eta benetako ekoizpen plantetan eskuratutako esperientzia konbinatzen ditu. Halere, enpresak erabaki zuen beste urrats bat ematea ikasleen espezializazioan, hirugarren urte bat gehituta. Eta aurten diplomatu da espezializazio horretako ikasleen lehen promozioa. Sei ikasle izan dira guztira, eta horietako bi elgoibartarrak dira: Endika Etxaniz eta Aitor Murua. *Fabrikazio aurreratuko makina-erreminten proiektuak prest jartzeko lanetako espezialista* egiaztagiria jaso dute. Eusko Jaurlaritzak homologatuta dago, eta Mekatronikako Goi Mailako Prestakuntza Zikloa eta espezializazio urtea amaitu ondoren ematen da.

Titulazio honen ezaugarri nagusietako bat da ikasleek fabrikazio ingurune operatiboan gainean eskuratzen dituztela eza gutzak, eta ikaslearentzat, aparteko urte hori elementu bereizgarri bat da curriculumean, bi urteko Lanbide Heziketa egiten duten pertsonen aldean.

### Esperientzia positiboa

Endika Etxanizek 27 urte ditu, eta Aitor Muruak, 22. Lanbide Heziketaren aldeko apustua egin zuten, batetik, IMH ikastetxea herrian bertan dutelako, eta, bestetik, lan mundurako sarbidea errazago ikusten zutelako. Bi urteko zikloa egiteko asmoz sartu ziren, baina eskolan hastearrekin bat eman zieten hirugarren urteko espezializazio baten berri. DANOBATGROUPEK eskaintzen zuen, eta



Endika Etxaniz, behean, ezkerretik hasita hirugarrena. Aitor Murua eskuinean, zutik.

### “Muntatzaileen Tailer Eskola funtsezko heziketa proiektua da DANOBATGROUP taldearentzat”

ikasleak lantegiaren premia zehatzetara prestatzeko espezializazioa izango zen. 15 ikasle agertu zuten hori egiteko interesa, eta lantegiak sei aukeratu zituen. Beraiek izan ziren horietako bi, eta “zorte handia” izan zutela adierazi dute. Hiru urteko ikasketak izan dira, eta “luze samar” egin zaiela aitortu duten arren, “pozik” daude lortu dutenarekin, azkenean hirugarren espezializazio urte honek bereizgarri bat ematen dielako ikasleei. *Ikasi eta Lan* sistema egokia iruditu zaie, “oso eramangarria”. Badakite oraindik asko dutela ikasteko eta benetan ofizioa orain ikasiko dutela, baina oinarri sendoa jaso dutela uste dute. Pozik daude ikasketak amaitu eta lanean hasi direlako, “herrian bertan gainera”. Edozein lan egiteko prest daude: “Muntatzaile lanetan hasiko gara, kanpora

bidaiatu beharko dugu eta denetarik egitea tokatuko zaigu, baina gaur egungo egoeran zorionekoak gara”.

### Ikasi eta Lan

Muntatzaileen Tailer Eskola funtsezko heziketa proiektua da DANOBATGROUPentzat. Eskola taldearen instalazioetan kokatuta dago, Elgoibarren, eta Lanbide Heziketa duala eskaintzen du, prestakuntza eta lana txandakatuz. Sistema horrekin ikasleek benetako ekoizpen inguruneetan ezagutza praktikoak eskuratzen dituzte, bai eta hizkuntzak ikasi, lan arriskuen prebentzioaren gaineko ezagutzak hartu, atzerriko egonaldiak egin eta normalean ikastetxeetan ematen ez diren beste eza gutza espezifiko batzuk jaso ere bai. Alemanian arrakasta eduki ondoren sortu zuten heziketa gune hau; izan ere, taldeko Alemaniako enpresek jada garatzen zuten heziketa sistema hori beren instalazioetan.

Modeloa indartzen jarraitzeko, pasaden martxoan Gipuzkoako konpainiak hitzarmen bat izenpetu zuen Jaurlaritzarekin, Lanbide Heziketa dualeko proiektuak bultzatzeko



## ▶ JOXEAN EGAÑA

IMHKO ZUZENDARI OHIA

**Joxean Egaña (Deba, 1957) IMHko zuzendari izandakoak erretiroa hartuko du uztailean. IMHren sorreran parte hartu zuen 1985. urte inguruan, Jose Rejorekin eta Javier Lopezekin batera, eta zuzendari gerente kargua, berriz, 2000. urtean hartu zuen, iazko uztailean arte. Ekonomia eta Enpresagintzan Lizentziatua da, eta irakaskuntza izan du lanbide. Badoa IMHtik, baina ez da urrutira joango. Lanbide Heziketa izan du ofizio, afizio eta pasio, eta hori ez zaio egun batetik bestera bukatuko. IMH esku onetan utzi duela dio.**

- AINHOA ANDONEGI -

# “Estatuan erreferente da IMH fabrikazio mekanikoan, eta harro esan dezakegu”

### ♦ IMHren sortzaileetako bat izan zinen, eta azken 16 urteotan zuzendari izan zara. Zer eman dizu IMHk?

Galdera ona! Ilusioa, proiektua, motibazioa, garapen pertsonala, bidaiatzeko aukera, erronkak, demak... milaka eta milaka gauza eman dizkit IMHk. Burukominak ere bai, baina gauza onak gehiago izan dira.

### ♦ Eta zuk, zer eman diozu IMHri?

IMH sarien ekitaldian erabili nuen esamolde berberarekin erantzungo dizut: badago esaera bat galdetzen duena idia nongoa den, jaiotzen den lekukoa ala egiten den lekukoa. Nik esamolde horri gehitu nion esna dagoen tokikoa dela. Ni debarra izan arren, ordu gehiago pasatu ditut esna Elgoibarren, IMHn. Ordu asko eskaini dizkiot IMHri, ahal izan dudan guztia eman diot, neukan onena.

### ♦ Nondik sortu zitzaizuen IMH sortzeko beharra?

Mekan irakasle nintzen ni garai hartan, 85-86 urte ingurua izango zen. Zuzendaritza taldea bildu ginen gure eskaintza prestatzeko, eta prestatu genuen, baina metal alorrean matrikulazio gutxi genituenez, eskaintza ixteko agindu ziguten Hezkuntzatik. Hori izan zen abiapuntua. Guk eman izan ditugun aurrerapauso guztien atzean arazoak eta beharrak daude; hau da, arazo batetik abiatuta egin izan dugu beti aurrera. Metal adarreko ikasleen falta hark eraman gintuen proiektu berri bat diseinatzerara. Zirriborro bat prestatu eta enpresetara joan ginen gure proiektua aurkeztera, ordura arte sekula egin ez genuena. Ordura arte bi mundu ziren eskola eta enpresak, harremanik gabeko bi mundu. Garai hartako Lanbide Heziketak eta egungoak ez daukate zerikusirik, eta aldaketa horretan gu aintzindariak izan ginen. Enpresek esan ziguten proiektu hura ez zela batere berritzailea, zaharkituta geundela eta beste buelta bat eman behar geniola egitasmoari. 40 milioi pezetako aurrekontua zeukan proiektu batetik mila milioi pezetako proiektu batera egin genuen jauzia. Elgoibar herriak dituen ezaugarriak asko lagundu zuten gure proiektu berria gauzatzeko. Horrela hasi ginen, eta gaur egun Estatuan erreferente da IMH fabrikazio mekanikoan, eta harro esan dezakegu. Estatuan onenak gara, eta European ere prestigio oso ona daukagu, notable edo bikain kalifikazioa daukagu. Ez daukagu beste zentroen inbidiarik. Pozik gaude gure ibilbidearekin. Gaur hemen gaude, baina ez dugu ahaztu behar nondik gatozen. Atzetik egin dugun bide guztia izan behar da kontuan, eta hori guztia gure lankideei esker egin dugu; profesional bikainak.

### ♦ Lanbide Heziketa asko aldatu dela esan duzu. Zertan?

86-92 urte inguruan Foru Aldundiak inbertsio garrantzitsua egin

zuen, eta prestakuntza iraunkorra eskaintzen hasi ziren ikastetxeak. Langileak formatzen hasi ziren, eta gu hasieratik hasi ginen horretan. Elgoibar horren adibide da. IMHn esaterako milaka eta milaka ordu eskaini ditugu langileak kontrol numerikoan formatzen, enpresek behar hori zutelako. Enpresen beharrak kontuan hartzea izan da Lanbide Heziketaren klabea. Elgoibarrek garai zailak pasatu ditu. Apur bat atzera egiten badugu, 1986. urte ingurura, makina konbentzionalak ziren nagusi, eskuzko lana, krisia, 1991n Sigma ixten da eta 800 langile kalean geratzen dira... Baina lanpostuak ez dira desagertu. Enpresak desagertu arren, lanpostu kopurua mantendu egin da, eta Elgoibar erabili izan dute unibertsitate batzuek kluster edo ekosistema adibide gisa. Asturiasen, adibidez, meategi bat ixten da eta han ez da ezer geratzen, baina Elgoibarrek jakin du eboluzionatzen. Enpresa oso potenteak ditugu, hornitzaileak, ikerketa zentroak, formazioa, eta gaitasunak dituzten pertsonak. Hori da Elgoibarren sekretua. Eta guzti horretan IMH eragile inportantea izan da. Datu batzuk emate aldera, IMHn formatu dira 50.000 langile, 2.000 ikasle baino gehiagok egin dituzte Lanbide Heziketa zikloak, 500 bat ikasle egin dute ingeniarietza... Gu ez gara zentro handia, eta datu onak dira. Prestakuntza integrala eskaintzen dugu, lehen lanbide heziketa zentroak soilik ziren. Orain gainera, Asmaolaren bidez enpresa txikiak elkarlanean ari gara, haien beharrak asetzeko.

#### ◆ Zein da IMHren arrakastaren sekretua?

1995 urte inguruan erreflexio estrategiko garrantzitsua egin genuen, eta prozesu hartatik gauza interesgarri asko atera genituen. Nolabait esateko, IMHk jakin du aldaketari aurre hartzen. Orain esate baterako konpetentzien jabetzan oinarritzen da hezkuntza. Ez dira horrenbeste klase magistralak ematen, eta ikasleak gehiago prestatzen dira taldean lan egiteko. Jarrerak lantzen dira, konpetentziak modu transbersalean lantzen dira. Ba guk hori aspalditik egiten dugu. Edo ikasi eta lan sistemak ere gaur egun indar handia hartu du, eta guk 20 urte daramatzagu ingeniarietza dualarekin. Enpresa, ikaslea eta ikastetxea elkarlanean jartzen duen sistema da. Gu oso pozik gaude lortu ditugun emaitzekin, eta enpresek ere balorazio oso onak egiten dituzte.

#### ◆ Zein izango da aurrerantzean Lanbide Heziketaren erronka nagusia?

Errelebo generazionala emateko arazoak izango dira, gero eta populazio aktibo txikiagoa dugulako. Populazioa zahartzen ari da, une honetan jende gehiago gaude Gipuzkoan 60 urte bueltakoak, 22-25 urte artekoak baino, eta hori enpresentzat arazo izango da epe laburrean. Une honetan bertan enpresek kontratatze arazoak dituzte. Premiak dituzte, eta Lanbide Heziketatik irteten diren ikasleekin ez dute nahikoa. Elgoibarren enpresa asko jendea kontratatzen ari dira, jendea behar dute. Beste batzuk, aldiz, ixten ari dira. Hori da globalizazioa. Lanbide He-

ziketaren erronka nagusia da merkatura egokitzen jakitea.

#### ◆ IMHko Lanbide Heziketa zikloetatik zenbatekoa da laneratzeara?

Oso altua da. Demagun %80 dela, ba gainerako %20ek ikasten jarraitzen dute. Ingeniaritza Dualean esaterako, beti izaten ditugu Lanbide Heziketa zikloetatik datozen ikasleak, eta hori interesgarria da. Eta kontuan izan Ingeniaritza Dualean ikasleek kontratua izaten dutela enpresekin, eta gehienak ikasketak egiten dituzten enpresa horietan geratzen dira lanean.

#### ◆ Garai batean Lanbide Heziketa gaizki ikusia zegoen. Gaur egun aldatu da pentsamolde hori?

Bai. Gu Lanbide Heziketa hartatik gatoz, baina gaur egun goak ez dauka harekin zerikusirik. Lanbide Heziketa lan munduan barneratzeko modu segurua da gaur egun. Ikusi egin behar da ikasle bakoitzak dituen gaitasunak, baina gaur egun nik edonori gomendatuko nioke Lanbide Heziketaren bidea.

#### ◆ Lanbide Heziketa oraindik orain gizonetzkoen mundua da. Zergatik dela esango zenuke?

Gizartearen kontua edo arazo antropologikoa izango da. Ez dakit zein den arazoa, baina ez du asmatu Lanbide Heziketa emakumezkoengana bideratzen. Agian jendeak pentsatuko du tailerra zikina dela eta ez dela emakumeentzako egokia, baina gaur egun tailerrak txukunak dira. Guk izan ditugu ikasle neskek, eta oso lanpostu onetan bukatu dute enpresetan. Baina asko kostatzen zaigu emakumeak erakartzea. Batxilergoko irakasleekin saiatu izan gara, De-

bege sarekin eta enpresekin ere bai, baina izugarri kostatzen zaigu. Lanbideak oraindik oso bereiztuta daude. Irakaskuntza, esaterako, oso femeninoa da, merkataritza eta zerbitzuen sektorea ere bai, sanidadea ere... Industria, aldiz, gizonetzkoena da. Baina emakumeentzat berdin balio du, eta oso sektore egonkorra da.

#### ◆ IMH sarien barruan egin zizuten omenaldian parte hartu zuten guztiak Lanbide Heziketarekiko duzun pasioa nabarmendu zuten. Nondik datorkizu pasio hori?

IMHren erditzea bizi izan nuen, eta behin hor egonda, nire parte sentitzen dut. Oso barrutik bizi izan dut hau guztia, asko sufritu eta gozatu dut, eta horrek eragiten du pasioa. IMHn ere pasatu ditugu urte gogorrak. 2013-14 urte inguruan EREn sartu ginen. Fakturazioa asko txikitu zitzaigun eta transformatu behar izan genuen. Erabaki gogorrak hartu behar izan genituen.

#### ◆ Zu bazoaz. Zure atzetik datozenei, zein gomendio emango zenieke?

Gomendio gutxi. Ni laguntzeko prest egongo naiz aurrerantzean ere, baina oso lantalde potentia dago hemen, eta ez daukat haientzako gomendio askorik. Behar banaute, hor izango naute. Lanbide Heziketarekiko dudak pasio hau ez zait uztailean pasatuko. Zerbait idazteko asmoa daukat, ikasteko ere bai... ez naiz aspertuko.

*“Ez dugu asmatu  
Lanbide Heziketa  
emakumeengana  
bideratzen”*

## Napoka Iriak azken kontzertua emango du gaur, Eibarko Coliseo antzokian



**N**apoka Iria bikoteak gaur iluntzean eskainiko du azken kontzertua, Eibarren, Coliseo antzokian. Ander Mujika eta Miren Narbaiza hainbat proiektutan murgilduta ibili dira azken urteotan, eta bitartean, Napoka Iria isilik egon da. Bi urteko atsedenaldiaren ondoren, Napoka Iria bertan behera uztea erabaki dute. Gaur emango diote amaiera, beraz, hamabi urteko ibilbideari. Ibilbide horretan bidelagun izan dituzten hainbat musikarirekin eskainiko dute kontzertua. 20:30ean izango da.

## Alemaniko ikasleek Elgoibarrera eginiko bisita itzuli diete Elgoibarko ikasleek



Elgoibarko Institutuan Batxilergoko lehen ikasturtean Alemaniera ikasten aritu diren ikasleek ikasitakoa praktikan jartzeko aukera izan dute Alemaniara egin duten bidaietan. Sei egun pasa dituzte Karsruhe, Heideberg eta Baden-Baden hirietan. Hango familien etxeetan egon dira, eta euren adineko gazteekin hainbat ekintza eta plan egin dituzte. Izan ere, maiatzeko azken astean Karlsruhe (Alemania) hiriko 26 ikasle Elgoibarren izan ziren, Institutuak duen elkartruke programaren barruan. Elgoibarko, Mendaroko eta Debako ikasleen etxeetan egon ziren orduan, eta, besteak beste, inguruko herrietara, Bilbora eta Donostiara egin zituzten bisitak.

## Santana jaietako paella lehiaketan izena emateko epea zabalik dago

Uztailaren 22an izango da Kuadrillen Eguna Santana jaien barruan, eta beste hainbat ekintzaren artean, paella lehiaketa antolatu dute egun horretarako. Parte hartu nahi dutenek 5 euro ordaindu beharko dituzte. Izenematea Menditxo, Uztargi edo Aitz Beltz tabernetan egin behar da, uztailaren 16a baino lehen. Paella lehiaketa uztailaren 22an izango da, 13:00etatik 14:00etara bitartean. Udalak jarriko ditu arroza, oilaskoa, gatza eta olioia. 15:00etan egingo dute bazkaria.

## Iruñeko San Ferminetako entzierroak zuzenean

Azken urteotako ohiturari jarraituz, Iruñeko San Ferminetako entzierroak zuzenean ikusteko aukera eskainiko du Elgoibarko Udalak. Gaurtik hasita, hilaren 14ra arte, egunero eskainiko dituzte entzierroak, 8:00etan, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## Sanbartolomeetako Gazteen Eguneko kamisetarako logoa aukeratzeko lehiaketa

Sanbartolomeetako Gazteen Egune-rako logoa aukeratzeko lehiaketa antolatu du Elgoibarko Gazte Asanbladak. Logotipoan ezinbestean agertu beharko da #gaziakgerabarren etiketa. Interesatuak [elgoibarkogazteasanblada@gmail.com](mailto:elgoibarkogazteasanblada@gmail.com) helbidera bidali beharko dituzte logotipoak, uztailaren 14rako. Kamiseten eskerak egiteko ondorengo link honetan sartu eta kuadrillen datuak eman behar dira: <https://goo.gl/forms/iPFF7Of2kcev62Ox2> Aurten ere, GaztiakGeraBarren kolektiibo kuadrillen artean ari da Gazteen Eguna antolatzen.

## Mendaron ere hasi dira Udalekuak



**E**lgoibarren joan zen astean hasi ziren Udalekuak, eta astelehen honetan Mendaron. Aurten, Elgoibarko Izarrak kudeatuko ditu estreinakoz Mendaroko udalekuak, eta hainbat eta hainbat ekintza prestatu dituzte umeen aisialdirako. 62 umek eman dute izena guztira.

## Haizea emakume taldeko kideak Avilan izan dira



Haizea emakume taldeak antolatuta, Avilan pasatu dute asteburua Elgoibarko 60 emakumek. Arenas de San Pedro, Cuevas del Aguila eta Arevalo bisitatu dituzte besteak beste. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, primeran pasatu dute asteburua.

## Kirol Argazki Lehiaketa

Elgoibarko Udalak Kirol Argazki Lehiaketa antolatu du, Ongarri argazki taldearekin batera, eta uztailaren 17a izango da parte hartzeko azken eguna. Argazki zaletu guztiek hartu dezakete parte, bai profesionalak eta baita amateurrek ere. Partaide bakoitzak gehienez ere lau argazki aurkeztu ahal izango ditu, eta lanak originalak izan beharko dira. Antolatzaileek hainbat sari emango dituzte: Sari orokorra irabazten duenak 300 euro jasoko ditu, eta bigarrenak, 200 euro. Herriko irabazleak 200 euroko saria jasoko du. Gazteen irabazleak 300 euro jasoko ditu, eta bigarrenak, 200 euro. Nerabeetan, aldiz, irabazleak 150 euro jasoko ditu, eta bigarrenak, 100 euro. Sari bana-keta abuztuaren 22an egingo dute, eta lanak irailaren 2ra arte egongo dira ikusgai Kultur Etxean.



## Iñigo Lariz jaun eta jabe Nahaste Borrasten



Iñigo Lariz eta Ainhoa Lendinez gailendu ziren Nahaste Borraste proba herrikoia 33. edizioan, aurreko barixakuan. Zazpigarren aldiz irabazi du Larizek proba (2008, 2010, 2011, 2012, 2015, 2016 eta 2017) eta Martin Dominguezekin zuen berdinketa hautsi du, hark sei garaipen baititu (1993, 1996, 1997, 2000, 2003, 2004). Aurtengoan Hasier Murua izan zen Larizen aurkari gogorrena. Muruak antxitxikako azken proba lehen postuan hasi zuen arren, Larizek 39 segundoko aldea atera zion Muruari helmugan. Iaz ezarri zuen errekorretik (17:34) 23 segundora gelditu zen Lariz (17:57). Edonola ere, ez ziren errekorra ontzeko baldintzarik egokienak eman, bizikletako proban ari zirela euria hasi zuelako eta irristakor laga zuelako zorua. 37 lagunek parte hartu zuten, tartean emakume bakarrak, Ainhoa Lendinezek. Proba honetan lortzen duen 11. garaipena lortu zuen Lendinezek, 20:59ko denbora eginda. Antolatzaileek iaz zendu zen Jose Gurrutxaga gogoan izan dute sari banaketan. Kimetz elkarteko presidente Jose Luis Bollarek oroigarria eman zion Jose Gurrutxagaren seme Juanjori. Argazkiak eta sailkapenak: [www.barren.eus](http://www.barren.eus)

## C.D. Debabarrena areto futbol kluba desagertu egingo da

Arazo ekonomikoak medio, desagertu egingo dira C.D. Debabarrena areto futbol klubeko talde guztiak, tartean azken denboraldietan Nazional B Mailan aritu den Concepto Egile. 1989ko irailaren 27an, duela 28 urte, hasitako ibilbidearen amaiera dela jakinarazi du taldeko presidente Jose Ramon Iriartek, eta erabakiak ez daukala atzera bueltarik gaineratu du. Kirolgiren diru-laguntzarik gabe gelditu izana ezin izan dutela gairatu azaldu du Iriartek, kluba lehenetik ere egoera ekonomiko "delikatuan"



zegoela-eta. Arartekoan Kirolgiren aurkako salaketa jarri du C.D. Debabarrena. Alabaina, epaia aldekoa edo kontrakoa izan, beranduegi ailegatuko da klubaren biziraupenerako.

## Javier Ezenarro zenaren omenezko txirrindulari lasterketa Mendaron

X. Javier Ezenarro Oroitzarrea txirrindulari lasterketa jokatu dute zapatuan, uztailaren 8an, Mendaron. Mendaroko Txirrindulari Elkarteak antolatzen du urtero lasterketa hau, eta guztira, 80 bat kilometroko ibilbidea egin behar izaten dute txirrindulariek, bi aldiz Osintxuraino joan eta beste birritan Kalbarioko gaina igoz. 16:00etan hasiko da lasterketa.





## Ehunmilak ultra traila Elgoibartik pasatuko da

Elgoibartik pasatuko da gaur gauean Ehunmilak mendi lasterketa, 22:00etatik 2:00etara. Egoitz Mujika Errasti elgoibartarrak eman du izena 168 kilometroko ultratraillean eta Elgoibarren lan egiten duen Javi Dominguez izango da proba irabazteko favorito nagusietako bat. Askoz gehiago izango dira G2Handiak 88 kilometroko proban parte hartuko duten gure ordezkariak, 28 elgoibartar eta mendaroar bat, hain justu ere.

## Enduro txapelketa Idorben

Urnobitza Kirol Klubak antolatuta, San Pedroko I. Enduro Txapelketa jokatuko dute domekan (uztailak 9) Idorben, auzoko jaien barruan. Idorbe eta Aiastiako mendietan barrena lehiatuko dira parte hartzaileak. Euskadiko Txapelketarako puntuagarria izango da Idorbeko proba.

## Jon Basurto da C.D. Elgoibarreko presidentea

Jon Basurtok ordezkatu du Antton Iranzo C.D. Elgoibarreko presidente karguan. Iranzok "arazo pertsonalak direla medio" laga du kargua. Halere, zuzendaritzako kide izaten jarraituko du. Alderantziko bidea egin du Basurtok, zuzendaritzako kidea izan baita orain arte.



## Xake partida azkarren txapelketa jokatuko dute bihar, Maalan

Elgoibarko Xake Taldeak antolatuta, xake partida azkarren taldekako txapelketa jokatuko dute zapatu honetan, uztailaren 8an, Maalako parkean. Partida osorako jokalaririk bakoitzak bost minutu izango ditu. Antolatzaileek aurreikusten dute, hamasei bat talde herrikoak izango direla. 16:30ean hasiko da txapelketa.

## Tenis eta padel txapelketek badituzte irabazleak

Elgoibarko 40-15 Tenis eta Padel Elkarteak hamar garren urtez antolatu ditu aurten padel eta tenis txapelketak. Joan den maiatzaren 2an hasi ziren lehiatzen eta uztailaren 1ean jokatu zituzten finalak Mintxetan. Teniseko finala, baina, Eibarren jokatu zuten aurreko egunean. Ruben Pinillos eibartarrak 6-1 eta 6-2 irabazi zion Sergio Urriza mutrikuarriari. Padel txapelketako emakumezkoen finalean Sonia Merino eta Olatz Lejardi durangarrek ez zieten aukerarik eman Alicia Iglesias eta Nora Hadi elgoibartarrei (6-0- 6-0). Gizonezkoetan, Oier Urigoitia eta Igor Zabaleta durangarrek osatutako bikoteak 7-5 eta 6-2 irabazi zion Aritz Martijak eta Asier Oyarzabalek osatutako bikoteari.



**LANA.....**

**Eskaerak**

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Interna moduan ere bai. ☎ 682 798 874

Umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Garbiketa lanak ere egiteko nituzke. ☎ 656 688 578

Adinekoak nahiz umeak zainduko nituzke edo garbiketa lanak egin, astelehentik ostiralera. ☎ 602 625 718

Adinekoak zaindu eta etxeko edo portaleko garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 638 338 816

Elkarateak eta portalak garbitzeko prest nago. ☎ 617 571 210

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago, orduka. Gavez ere bai. Garbiketa lanak ere egiteko nituzke.

☎ 602 893 569

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago, orduka. Gavez ere bai. Garbiketa lanak ere egiteko nituzke.

☎ 667 301 325

Elkarateak garbitzeko prest nago. Asteburuetan. ☎ 626 435 491 (Ildoia)

Gizona eskaintzen da adinekoak zaintzeko. ☎ 635 005 536

Nagusiak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Euskaraz dakit.

☎ 662 401 585

Adinekoak zainduko nituzke.

☎ 642 650 815 (Fran Orozco)

Umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Arratsaldez.

☎ 654 304 337

Pertsona nagusiak zaintzen egiteko nuke lan. Interna edo orduka. Gauak pasatzeko ere prest.

☎ 631 417 922

Emakumea eskaintzen da, edozein lan egiteko.

☎ 632 915 647

**Eskaintzak**

Mahats ardotejian lan egiteko zerbitzaria behar da.

☎ 646 936 092

Elgoibarko denda batean lan egiteko neska bat behar da lehenbailehen. Ezinbestekoa da euskaraz hitz egitea. Bidali curriculumak: [cvdenda@hotmail.com](mailto:cvdenda@hotmail.com)

**ETXEBIZITZAK.....**

Hiru logelatako etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.

☎ 602 625 718

**BESTELAKOAK.....**

Belar-hesiak mozteko makina elektrikoa salgai. Gutxi erabilitakoa. 150 euro.

☎ 667 406 490

OTAOLA  
Etorbidea, 13  
-EIBAR-  
943-200883

**beherapen handiak**  
**GOIKO-LUZ** dendan

**ELENA**

**ileapaindegia**

**Depilazio Elektrikoa**

San Frantzisko 49 -1    Tel: 943 741 189

**administradores**

Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas  
Euzkoaldea Euzko Administrazioaren Lanakite Kontsekiua

**ROSA Mª PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

**660 969 679**  
**rosapf@telefonica.net**

**Senide bat hil berri zaigu eta testamendua zabaldu dugunean jakin dugu hilberriak familiaz kanpoko bat izendatu zuela albazea, [testamentu emaileak bere azken nahia bete dadin izendatu duen pertsona]. Pertsona hori izango da hildako senidearen ilobei herentzia banatuko diena. Jakin nahiko nuke zeintzuk diren zehazki albazearen eginkizunak eta hari ordaintzeko betebeharririk dugun.**

Kasu honetan, ordainsaririk zehaztu ez denez, ulertu behar dugu albazea horrek doan jardun behar duela. Albazea horrek dituen gastuak jarauspenean pasatuko dizkio. Hala ere, ohikoa da testamentugileak ordainsari bat zehaztea albazearentzat, eta herentziatik hartuko da albazeari ordaintzeko diru hori. Ordainketa hori, normalean, testamentugilearen konfiantzazko pertsona batek egiteko du, gehienetan abokatu batek, herentzia testamenduan esaten den moduan eta testamenduan zehazten den jendeari banatuko dionak. Kargu pertsonal bat da, eta ezin du beste inork bete eginkizun hori, testamentugileak kontrakoa esan ez badu behintzat. Albazearen izendapena partikularra izan daiteke, gauza jakin bat entregazteko denean nahiz herentzia osoa entregazteko denean. Borondatezkoa da albazea izatea. Ardura hori bete nahiko ez balu errenuntzia aurkez dezake.

**AHOLKUA: Albazea izendatzea gomendagarria da herentziak gatazka bat sor dezakeela aurreikusten denean (ezkontza bat baino gehiago seme-alabak ari direnean herentzia eske), adingabeko umeak tartean daudenean edo hildakoak seme-alabarik ez duen kasuetan.**

Enpresa kolaboratzailea: **NORFO** P. M. Urruzuno kalea, 6 - Elgoibar



## ZORIONAK ZURI

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira **BARRE**Neko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



Zorionak, **Iker**, igandean, 10 urte beteko dituzulako. Etxekoen eta bereziki, Miren eta Ane-  
ren partez. Ondo pasa!



Zorionak, **Oier**, familiako guztien partez. Zapatuan 7 urte! Ederki ospatuko dugu!



Zorionak, **Lara**, asteazkenean 3 urte egin zenituelako, eta zuri, **Daniel**, abuztuaren 7an 5 urte egingo dituzulako. Muxu asko familiako guztien partez.




Zorionak, **bikote**, zuen urrezko ezteingatik. Familiako guztien partez, muxu handi bana.



Zorionak, **Mikel eta Jon**, zuen bosgarren eta zortzigarren urtebetetzeetan. Patxo asko bio!



Ezkontza egunean pasatu genuen bezain ondo pasa dezazuela zuen ezkontzabidaian. Zorionak eta muxu asko familia guztiaren partetik.



Zorionak, **June eta Luken**, uztailean 7 eta 4 urte egiten dituzuelako. Etxekoen partez.

**Gizonezkoen ILEAPAINDEGIA - BIZARTEGIA**  
Antonio Arrillaga, 10

- Hile mozketak: 7€ ( umeak 5€)
- Bizarra moztu edo txukundu: 4€
- Bizarra moztu eta txukundu: 10€

**632 072 625 / 632 882 820**

*Igandeetan zabalik!*

**Badatoz santanak eta sanbartolomeak!**

**BARRE**Nen publizitatea jartzeko:

**943 744 11**

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

**Uzuri** ELGOIBAR - DEBA  
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar  
Tel.: 943 740 359 [www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)

**EGUZKITAKO BETAURREKOETAN AUKERA ZABALA.**

**19€** gehiagogatik **GRADUATU ITZAZU!**

\* Kontsultatu baldintzak

**ONWA 40" 40UHD TELEBISTA**

**339€**

**40"**

**4K UHD - SMART TV**  
**2x HDMI - A+**

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

**COMBI SAMSUNG**

**529€**

**RB33J3200SA/EF**  
**328 LITRO - NO FROST**  
A+ (-20%eko aurrezpena) Inoxidablea

**MILAR BIRE**

Ubitarte, 11  
943 741 487  
[bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

*Udaz goza ezazu*

## 7 BARIXAKUA

**8:00** Iruñeko San Ferminetako entzierroak, zuzenean. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Hilaren 14ra arte, egunero emango dituzte.

**10:30** San Fermin Txiki. San Bartolome eta Errosario kaleetan zehar egingo dute entzierroa, Atxutxiamaiak antolatuta.

**21:30** Bideo Foruma. 'La bicicleta verde' filma landuko dute, Loredi Salegik dinamizatuta. Antolatzailea: Haizea.

**22:00** Ultratrail lasterketari ongi-etorria, Azkaraten.

## 8 ZAPATUA

**16:00** Elgoibarko xake txapelketa. Zubi-Ondo elkarteak antolatuta.

**16:00** Javier Ezenarro zenaren ome-nezko txirrindulari lasterketa Mendaron.

## 14 BARIXAKUA

**19:30** Sanloren urteko batzar nagusia. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

**22:30** 'Memoriaren ganbaratik' filma. Kalegoen plazan. Filma bukatu ostean DVDak jarriko dituzte salgai Jai Alai tabernan.

## SAN PEDRO JAIK IDOTORBEN

### 9 DOMEKA

**Euskadiko Enduro Motor txapelketa**

**8:30** Egiaztapenak frontoian.

**9:30** Lasterketa

**14:00** Sari banaketa.



## Jose Ramon Salegi Urain

2017ko uztailearen 6an hil zen, 62 urte zituela.

***Ez agurrik, ez adiorik;  
egun handira arte.***

Elgoibarko Sortuko familia



# LETE

JANTZI DENDA

# LIKIDAZIOA

sozietate aldaketagatik

# %50

era arteko  
deskontuak

G-Star

Levis

Diesel

Replay

New Balance

Lacoste

Etiem

Gant

Armani

Aeronautica

## Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

G  
U  
A  
R  
D  
I  
A  
K

09:00 - 22:00

7 Barixakua ORUESAGASTI  
8 Zapatua BARRENETXEA  
9 Domeka BARRENETXEA  
10 Astelehena IBAÑEZ  
11 Martitzena GARITAONANDIA  
12 Eguaztena ETXEBERRIA  
13 Eguena FERNANDEZ  
14 Barixakua YUDEGO

20:00 - 22:00

\* Guardia Elgoibartik kanpora  
denean, asteburuetan ezik:  
BARRENETXEA (Elgoibar)  
Errosario, 26 - Tel.: 943 741 277

22:00 - 09:00

MANDIOLA (Eibar)  
San Agustin, 3 - Tel.: 943 820 533

\* Fernandez: Herriko enparantza, 4  
Garagartza (Mendaro)  
Tel.: 943 756 142

\* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)  
Tel.: 943 751 638

\* Oruesagasti: Kalebarren, 9  
(Soraluze) - Tel.: 943 751 384

Aire Libreko Zinea  
(Kalegoen Plazan)

'Monster trucks'  
8 zapatua, 22:30

## Ekainean hildakoak

## . Jesus Urain Arrona

73 urte, ekainak 7

## . Arantxa Etxabe Txurruka

87 urte, ekainak 8

## . Juan Mari Uranga Uranga

51 urte, ekainak 9

## . Enrique Artetxe Ansola

86 urte, ekainak 12

## . Jose Moreno Gomez

80 urte, ekainak 13

## . Enrique Molina Blanco

94 urte, ekainak 17

## . Mari Carmen Moulian Mendia

99 urte, ekainak 19

## . Jesus Lopez de Larrinzar Larrea

85 urte, ekainak 22

## . Fidel Dominguez Molguero

92 urte, ekainak 22

## . Xabier Jauregi Esnaola

63 urte, ekainak 24



# ETXEBERRIA

## EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar  
[info@funerariaetxeberria.com](mailto:info@funerariaetxeberria.com)  
[www.funerariaetxeberria.com](http://www.funerariaetxeberria.com)

Kutxak, trasladoak eta koroak.  
 Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.  
 Erietxe zentruetan zerbitzuak.



Iñigo Lamelas

## Jose Luis Azpillaga



Egunsentia Olason. Gau hotzaren ostean, goizeko eguzki epelak hilobiak eta hormak goxatzen ditu. Imajinatzen ditut hildakoen hezurak berotasun samurrean atsegin hartzen. Eguzkiaren argiak kolore bereziz margotu du hilerri guztia, eta farolek ere argi egin nahi dutela ematen du. Sarrerako arku handiak ohiko itxura beldurgarria galdu eta babesle ageri zaigu. Badirudi heriok ihes egin duela egunsentiaren beldur, Bagdageko morroiaren bila Ispahanera iritsi zenean bezala. Badator eguzkia bizitzaren aldarri eginez! Utikan herio!

“Ez izan beldurrik, hiltzea ez baita ezer. Lo gozo bat baizik ez, nolaz eta trikuak egiten dakien neguan, bere baitara gozoki bildurik”. Hala zioen Hasier Etxeberriak heriotzaren atarian “Atzo hil egin nintzen” testu zirraragarrian. Ba omen zekien zer zen heriotza: aurretik ere, bere gaixotasunagatik, bizi izan omen zituen

hilda egotearen antzeko egoerak. Ez dakit txorakeria begitanduko zaizuen, baina sinetsita nago dena ez dela amaitzen heriotzarekin; badakit hildakoak naturaren zantzu eta izaki guztiengan ere bizi direla: txoriengan eta zuhaitzetan, haizetan eta lainoetan, eta batez ere gure barruan.

Inor ez da hiltzen  
jokoa ez da amaitzen.

Inor ez da hiltzen  
ate-joka inor ez dator.  
Nahiz aldatu bai:  
ez da hiltzen,  
ez da hiltzen,  
ez, inor ez.

(Abesti bat gutxiago - Lau Topet)

*“Sinetsita nago dena ez dela amaitzen heriotzarekin”*



[www.inharmutiozabal.com](http://www.inharmutiozabal.com)

[info@inharmutiozabal.com](mailto:info@inharmutiozabal.com)

943 604 981 / 629 711 572

**Z**ure ezkontza iruditan jasotzeko argazkilari bila bazabiltza, Inhar Mutiozabal da zure aukera. Langilea, profesionala eta laguna izango da, zuretzako hain garrantzitsua den egun horretan. Argazkilaritza du pasio, eta azken urteotan, ofizio ere bai. 60 ezkontza baino gehiago erretratatu ditu bere kamerarekin, denak estilo berean, baina denak desberdinak, norberaren neurriera egokitzen delako. Sormena landuz, modu pertsonalizatuan egiten du lan, bikoteari uneoro konfiantza emanez.

► **Zer berezitasun dute zure argazkiek?**

Naturaltasuna oinarri hartuta, historiari kontatzea dut helburu kamera hartzen dudana bakoitzean. Ezkontza batetan egoten diren momentu ezberdinetan gertatzen ari den hori modu artistikoan kaptatzen saiatzen naiz, begiradak, emozioak, momentuak... Ez zaizkit prestatutako argazkiak gustatzen, hau da, kamerara begira pose naturalak ez direnak erabiliz, dena prestatuta dagoela nabari diren argazki horiek. Nire leloa *gaurko argazkia, biharko oroitzapena* da. Hori kontutan izanda, momentu berezi horiek kaptatzen ditut, hemendik urte batzuetara ezkontza egunaren oroitzapen bizia izango direlako nire argazkiak.

► **Ezkontza erreportajeetan aditua zara, eta hainbat sari ere irabazi dituzu. Kontaiguzu apur bat zein sari dituzun.**

Azken bi urte hauetan zenbait sari jaso ditut Espainia nahiz mundu mailako ezkontza argazkilari elkarte ezberdinen eskutik. Lehengo saria Fotografos de Bodas de España elkartearen eskutik jaso nuen. Horren ondoren, WedPhotoSpain sari bat jaso nuen, hau ere Espainia mailako saria. 2016ko abuztuan ISPWP Estatu Batuetako Elkartearen mundu mailako saria jaso nuen. Azkenik, urte hasieran, Unionwep espainiar elkarterik garrantzitsuenaren eskutik bi sari jaso nituen eta honek urteko ezkontza argazkilari onenaren sariketarako hautagai izatea ekarri zuen. Duela egun gutxi Fearless Elkartean sartzeko gonbitea jaso dut. Fearless munduko ezkontza argazkilari hoberenek osatutako elkarte da. Urteetan elkarte honetako argazkilarien lanak ikusi eta jarraitu ditut, niretzat erreferentzia leku bat izan da Fearless beti, eta, orain, nire izena hor barruan ikustea izugarria da. Egia esan, azken bi urteetan bizitzen ari naizena amets bat da.

► **Nola lortzen duzu bikoteen onena ateratzea argazkietan?**

Oso erraz. Ezkontza aurretik eurekin geratu eta haien konfiantza irabaztea da sekretua. Horrela, ezkontza egunean dena oso natural ateratzen da, barreak eurenak dira eta izateko modua ere. Horregatik, oso garrantzitsua da bikotearen izateko moduarekin bat doan argazkilaria topatzea. Ezkontza aurretik bikote erreportaia bat egiten saiatzen naiz "Preboda" delakoa, eurekin



denbora pasatzeko, eurak ezagutzeko, eta normalean, zerbeitxo batekin amaitzen dugu gure bizitzaren inguruan hizketan. Horrek ezkontza egunean nirekiko duten "hesi" hori kentzea errazten du. Nire eskuan dagoen guztia egiten dut bikotearen ezkontza egunean euren hurbileko eta konfiantzako pertsona bat bezela ikus nazaten. Nire presentziak lasaitasuna ekartzen badie bikoteei, lan erdia baino gehiago eginda dago, euren onena erakutsiko baitute kamararen aurrean.

► **Euren ezkontza prestatzen ari den bikoteari zer gomendio emango zenioke?**

Urte batzuk badaramatzat ia astebururo ezkontzatan lanean, eta gomendio asko ditut buruan, baina garrantzitsuena norberarekin bat datorren ezkontza prestatzea izango litzateke. Protokoloak, konpromisoak, eta halakoak alde batera utzi eta disfrutatzeko ezkontza bat antolatzeke gomendioa egingo nieke. Batzuetan besteengan pentsatzeagatik bikoteek ez dute euren egunaz gozatzen, eta pena da, ez baita berriz ezkontzeko aukera askorik izaten.

# Gremioen gida

Aroztegiak  
Elektrizitatea  
Igeltseritza  
Iturgintza  
Leihoak  
Pintura

## ITURGINTZA



ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, behea  
Elgoibar  
943 740 530 / 605 714 905  
santanaiturgintza@gmail.com



Hemiko Erparantz, 10 behea  
MENDARO  
943 75 60 44 / 628 529 692  
Faxa: 943 75 60 37  
pagoerrotaiturgintza.com  
www.pagoerrotaiturgintza.com



Pedro Muguruza Etorbidea, 11  
ELGOIBAR  
Tel.: 943 254 522  
Faxa: 943 254 523  
ongi@ongielgoibar.com  
www.ongielgoibar.com



San Roke 10-A, behea B  
Elgoibar  
Floren Cid: 647 463 436  
ibamar@euskalnet.net



Azpilgoeta 7 behea - Mendaro  
Tel.: 943 755 062 / Faxa: 943 743 062  
iturgintzate.llabide@hotmail.com



BULEGOA ETA ERAKUSKETA  
Pedro Migel Urzuzuno, 8  
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 585  
senda@pagoagasa.com  
www.pagoagasa.com

BILTEGIA  
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279  
taller@pagoagasa.com

ELGOIBAR

## AROSZTEGIAK



Ermuaranbide, 12-14-16  
tel/fax. 943 743 116  
www.biena.eus  
info@biena.eus



Olaso industrigunea, 17 behea  
943 531 471  
609 054 978  
carpinteriaimar@hotmail.com



aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain Industrigunea, 9  
20850 Mendaro

Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com



ASIMA

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226  
650 026 631  
636 886 322  
943 744 225

asimaaroztegia@gmail.com



AROSZTEGIA ETA ENBALAJEAK

Albixuri industrigunea, 1-0/1-P

943 740 547



## IGELTSERITZA



Urasandi, 22 behea - Elgoibar

Tel.: 605 705 204

Gremioen arteko  
koordinazioa.  
Pladurarekin ere  
lan egiten dugu.



Jardiñeta, 25 behea  
EIBAR

Ernesto: 620 060 104  
Fran: 600 465 789



Era guztietako  
igeltseritza lanak  
egiten aditua

angelmgarate@gmail.com  
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia  
Elgoibar

610 226 651

## PINTURA



Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552  
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

## ERREFORMAK



Errosario kalea, 15 behea - Elgoibar

943 744 019  
605 713 168

- \* Proiektuak
- \* Erreformak
- \* Gremioen koordinazioa
- \* Obren zerbitzu integrala

## ELEKTRIZITATEA




Kilimon hiribidea, 1 - Mendaro  
943 530 358

iparelek@gmail.com  
iparelek@iparelek.com



Uparitzaga 10, 6.B  
Elgoibar  
karranzaj@gmail.com

Tel.: 943 741 280  
Jose Luis: 626 555 999



ELEKTRIZITATEA S.L.  
(lehen TAES)

Ego-Gain, 9 AC  
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345  
Raimon: 677 512 462  
Bulegoa: 943 200 697



INSTALAZIO ELEKTRIKOAK  
DOMOTIKA  
TELEKOMUNIKAZIOAK

943 741 238  
680 756 248

San Frantzisko, 56 - Elgoibar  
roteta@rotetaelek.eus

## LEIHOAK



SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223  
lodosofj@gmail.com  
Tel.: 943 74 34 90